

# Amaia Zeberio Aiestaran

**A** maila • 1 aipamena

Amaia naiz, zaldibiarra. Poesia idazten saiatzen dena izanda, ezin autobiografia arrunta egin. Jaio nintzen egunetik aurrera kontatu behar zein naizen, bizia dudanetik hasita ezinezkoa baita. 2002ko irailaren 5a, osteguna. Txikitatik animalia zalea, eta ezinegon handikoa. Nire zaletasunen artean zaldiak daude, nahiz eta egunerokotasunean zaila egiten zaidan nire zaletasun handiena den hau betetzea. Gogoko dut zaldia hartu eta inguruko basoak zeharkatzea, isiltasunean egoten jakitea. Baina baita soinuak entzutea ere. Txiki -txikitatik jotzen dut pianoa. Hortik hasi nintzen idazten, momentuan nire buruan zegoen korapiloa paperaren gainera pasatu nahian, aurrena notekin eta gero hizkiekin. Batzuetan, burutik paperera pasatzen dudanean, zati bat husten dudala iruditzen zait, berriro betetzeko prest dagoen zati zuri bat.



## LERRO PARALELOA

Lerro bat bezala  
ikusten zaitut,  
beti amaiezin,  
beti urrun;  
zure alboan jarrita  
zurekin batera noa,  
nonbaitera nolabait.

Baina,  
berdinak izateak  
ez gaitu batzen,  
ezta eskuak emanda ere.  
Erraza zara ikusteko,  
zailegia ordea  
ulertzeko.

Zerk desberdintzen gaitu orduan?

Ez gara bera.  
Eta ahalegin hutsa litzateke  
elkartu nahi izatea,  
horrela ere ez baitzintuzket ulertuko.  
Ez da zaila onartzea, bai, ordea  
ulertzea.

Askotan onartzen dut  
errealitate  
grisa,  
eta baita darizun sua ere.  
Baina ezin izaten zaitut ulertu.

Noizbait,  
agian,  
behartuko nauzu ulertzera, eta nik  
eskertu egingo dizut;  
ez baitakizu ondo,  
oraindik,  
zer sorrarazten didazun,  
zer ikustarazten didazun,  
denak erreza dirudi.  
Eta gainera, nahi gabe egingo duzu.

Orduan ez,  
ezina,  
lehen zu bezala urrunduko natzaizu,  
berriro istorio bera errepikaraziko dizut,  
ulertzera iritsi arte.

Noizbait,  
eskertuko nizuke  
bat egingo bagenu,  
eta zu ere orduan,  
konturatuko zinateke egarriaz.